



# ORTOGNATIKOA EDO HORTZETAKO ETA AURPEGIKO DEFORMAZIOAREN KIRURGIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA

## CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA CIRUGÍA ORTOGNÁTICA O DE LAS DEFORMIDADES DENTOFACIALES

### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU                      ARDURADUNAREN                      IZENA:  
..... Data: .....

### B. INFORMAZIOA:

Kirurgia ortognatikoa masailezurren posizioa zuzentzeko erabiltzen da eta ez hortzena banan-banan; ondorioz, hobetu egiten dira murtxikatzeko funtzioa, irensketa eta funtzio fonetikoak. Hezurdurako aldaketek aldaketak eragiten dituzte, halaber, aurpegiko morfologian; oro har, pazientearen onerako. Horretarako, osteotomiak (ebakiak eta mozketak) egiten dira aurpegiko hezurretan, eta posizio egokian jartzen dira. Maiz, masailezurak finkatzeko, osteosintesi plakak erabiltzen dira; plaka horiek metalikoak izaten dira, eta, oro har kendu beharrik ez badago ere, batzuetan kendu egin behar dira, hala nola ahoan jartzen direlako, mina eragiten dutelako, mugitu egiten direlako edo infekzioak ekartzen dituztelako. Bixurgatzen diren materialak ere erabiltzen ditugu. Ulertzen dut funtsezkoa dela nire ortodontistak ortodontziako tratamendua egitea kirurgia egin aurretik, egin bitartean eta ondotik. Gainera, baliteke kirurgia egin aurretik edo ondotik nire dentistak honako hauek egin behar izatea: hortzak konpontzea, periodontzia egitea (hortzoiaren tratamendua), tratamendu endodontzikoak, implanteak edo erauzketak... Ulertzen dut prozedura kirurgikoaren zailtasunak direla medio teknikaren aldaerak erabili behar izatea; besteren artean, masailezur arteko blokeoa (aho itxia) eta/edo ahotik kanpoko ebaketak.

### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Kirurgia mota hau gehienetan anestesia orokorarekin egiten da; anestesistak jakinaraziko dizu zein arrisku dakartzan horrek berekin. Ohikoa da odol-transfusioak behar izatea, eta horrek dakartzan arrikuak Hematologia Zerbitzuak azalduko dizkizu.

Estatistikoki, kirurgia honen konplikaziorik ohikoenetan sartzen dira, ez era zehatzean, honako hauek:

- Hematoma eta ebakuntza osteko hantura. Ebakuntza bitarteko edo osteko odoljarria.
- Ebakuntza osteko infekzioa, osteomielitisa barne. Ebakuntza osteko mina.
- Sentikortasun eza ezpainetan, kokotsean, masailetan, sudurrean, hortzoietan, mihian, hortzetan edo ahosabaian. Partzialki edo osoki, behin behinean edo betiko.
- Aurpegiko nerbioaren mugikortasun falta, iragankorra edo betirakoa.
- Inguruko hortzak kaltetzea eta geroago tratamendua edo ateratzea beharrezkoa izatea.
- Hezurretako zatiak txarto lotzea.
- Deformazioa berriz agertzea, partzialki edo osoki.
- Sinusitisa. Ahoaren eta sudurraren edo masailezurretako sinuen arteko komunikazioa.
- Osteosintesi-plakak agertzea. Osteosintesi-plakak infektatzea.
- Sudurraren edo sudur-trenkadaren deformazioa.
- Itxaropen estetikoak ez betetzea edota aldaketa emozional erreaktiboak aurpegiko aldaketen aurrean.
- Ahotik kanpoko ebaketak eginez gero, orban ez estetikoak sor daitezke.
- Tresnak puskatzea.

### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE                      DEL                      MEDICO                      RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

### B. INFORMACIÓN:

La cirugía ortognática se realiza para corregir la posición de sus huesos maxilares y no los dientes individualmente, con la consiguiente mejora de la función masticatoria, deglutoria y fonética. Los cambios en la estructura ósea provocan cambios en la morfología facial, generalmente positivos para el paciente. Se realiza mediante osteotomías (secciones y cortes) en los huesos de la cara y su posterior recolocación en la posición adecuada. Frecuentemente la fijación de los huesos maxilares se realiza con placas de osteosíntesis, que es el empleo de materiales metálicos que, si bien, habitualmente no hay que quitar, en ocasiones hay que hacerlo, bien porque se exponen en la boca o bien porque provocan molestias, se mueven o provocan infección. También utilizamos materiales que se reabsorben. Comprendo que es esencial el tratamiento ortodóncico que mi ortodoncista realizará antes, durante y después de la cirugía. Adicionalmente, puede ser necesario que, antes o después de la cirugía, mi dentista tenga que realizar: restauraciones dentales, tratamientos periodontales (de encías), tratamiento endodóncico, implantes o extracciones etc... Comprendo que por dificultades del propio procedimiento quirúrgico, puede que sea preciso realizar variaciones de la técnica y que pueden incluir entre otros, bloqueo intermaxilar (boca cerrada) y/o incisiones extraorales.

### C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES:

En la mayoría de los casos, esta cirugía se realiza con anestesia general con los riesgos inherentes a ella de lo que le informara su anestesista. Es habitual que se precisen transfusiones sanguíneas, de cuyos riesgos le informará el Servicio de Hematología.

Las complicaciones estadísticamente más frecuentes de esta cirugía puede incluir y no en forma exhaustiva:

- Hematoma e inflamación postoperatoria. Hemorragia intra o postoperatoria.
- Infección postoperatoria, e incluso osteomielitis. Dolor postoperatorio.
- Falta de sensibilidad de los labios, mentón, mejilla, nariz, encía, lengua, dientes o paladar. Parcial o total, temporal o permanente.
- Falta de movilidad del nervio facial, transitoria o permanente.
- Los dientes próximos a la cirugía pueden resultar dañados y requerir tratamiento, e incluso la extracción.
- Mala unión de los fragmentos óseos.
- Recidiva (recaída) total o parcial de la deformidad.
- Sinusitis. Comunicación entre la boca y la nariz o los senos maxilares.
- Exposición de placas de osteosíntesis. Infección de placas de osteosíntesis.
- Deformidad del tabique nasal o de la nariz.
- No cumplimiento de las expectativas estéticas y/o cambios emocionales reactivos a los cambios faciales.
- En caso de incisiones extraorales se pueden producir cicatrices inestéticas.
- Rotura de instrumentos.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

**D. ESAN IEZAGUZU:**

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez

**E. ARRISKU PERTSONALAK:**

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

**F. BESTELAKO AUKERAK:**

Ortodontzia egitea ondotik kirurgiarik egin gabe, hozkada hobetzen saiatzeko.

Hortzetako eta aurpegiko deformazioak kamuflatzeko teknikak erabiltzea; horrela ez dira ahalik eta gehiena zuzentzen defomazioak, baina izenak dioen bezala kamuflatu egiten dira (ahalik eta gutxiena nabaritzeko). Oro har, teknika errazagoak izaten dira, baina emaitza ez da hain handinahia (emaitza estetikoak, oro har Osakidetza ezin finantzatu duena).

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

**D.- AVISENOS:**

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones

**E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:**

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

**F.- ALTERNATIVAS:**

Realización de ortodoncia sin cirugía posterior, para intentar mejorar la mordida.

Técnicas denominadas de camuflaje de las deformidades dentofaciales, que no buscan corregir al máximo posible la deformidad sino camuflarlas como su nombre indica (hacer que se noten lo menos posible). Suelen ser técnicas normalmente más sencillas, pero de resultado menos ambicioso (resultado estético, generalmente no financiable por Osakidetza).

**DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN**

**FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.**


**Pazientea/ El Paciente**

**Pazientearen izen-abizenak**

Nombre, dos apellidos

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....




**Medikua/El/La Médico**

**Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....





**Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**

**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**

**Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

<.....

**Sinadura eta data**

Firma y fecha